

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldirakaria. 223. zkia. 2014ko maiatza



etorri

parte hartu

hitz egin

**Ekainaren 7an,  
zatoz Mintzodromora!**



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Inplantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madridgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madridgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**

Ines Arano, Amaia Arriaga,  
Maria Rosario Arrizabalaga,  
Asier Ibaibarriaga,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López, Pello Mugarza,  
Valentín Mugarza eta  
Yolanda Ruiz.

**ARGAZKIAK:**

Ines Arano, Amaia Arriaga,  
Luz eta Rosa María  
Carbonero, Estibalitz  
González, Aitor Hernández,  
Asier Ibaibarriaga,  
Pello Mugarza, Valentín  
Mugarza eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.400 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## GALEPERRA Codorniz *Coturnix coturnix*



Sasoi batean ugaria zen gari-jale hau; jatekoak alde egin dion neurrian, gure bazterrotatik galduz joan da, beste txori asko bezala. Zer ibiliko dira, pare bat bikote? Altuen! Oiloen espezie berekoa, haren moduan jaiotzeaz batera jatekoa bere kaxa topatzeko gauza da eta hura bezalako hegaldi motzeko hegaztia izanik, lurretik metro t'erdira altxatu eta geratu egin behar izaten du. Estimatu, preziatua... sekula-bedarra hazten den parajea aukeratuko du bizileku legez, kumeak gordezko instintuari men eginez. Gurera apirila edo maizta aldera iristen da eta herbeherean baino muino altuetan atontzen du habia: Elorreta, Joxio, Ureta, Betiondo, Trabaku, Aitxixo, Gerie... Hemendik Afrikara joango da, Gibraltarretik, senaz biderik motzena auke-ratuz eta inork sekula esan barik: "Juan hadi hemendik!"

## Hilabete honetan...

### MUNDUKO AHOTSAK....4

Stefania Atzori (Italia)

### ELKARRIZKETA .....5-7

Magín García, Ermuko Odol Emailen  
Elkarteko presidentea

### MALLABIAN ZER? .....8-9

Berri laburrak

### ERREPORTAJEA .....10-11

Luz Zalduegi, albaitari aitzindaria

### ERMUAN ZER? .....12-15

Mintzodromoa / 4. maila

### BOTEPRONTOAN .....16

Sabino Iturbe "Binbo"

### KIROLZALE .....17

Javier Sánchez txirindularia

### IRITZIA .....18

"Ume saharaien abegi-etxea Ermuan"

### SALEROSKETAK .....19

Saldu, erosi edo agurtu

### ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

### KALEKO INKESTA .....21

Bosgarren kontainerra

### AGENDA .....22

Ekaineko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Stefania Atzori

Sardiniakoa da Stefania; irlako hegoaldekoa, hain zuzen ere. Bidaia zalea izan arren, hamabost urte daramatza Ermuan. Gustura bizi da bertan, lasai, inguruko mendiek eta itsasoak liluratuta. Horrez gain, ermuarren prestutasuna gorai patzen du.

**- Nolako zen zure bizitza Sardinian?**

Nire gurasoekin bizi nintzen eta haiekin egiten nuen lan, hainbat denda eta taberna dituztelako.

**- Zergatik utzi zenuen Italia?**

Giroz aldatu nahi nuen eta ingelesa ikasi, beraz, Londresera joan nintzen. Sei hilabeteko bidaia zen, eta joan eta etorriko billetea erosi nuen; azkenean urtebete geratu nintzen, lanean. Gero, Ermuko mutil bat ezagutu nuen...

**- Eta hona etortzea erabaki zenuten?**

Ez. Familia faltan botatzen nuen, eta Londrestik Sardinia joan ginen biok. Ia urtebete eman genuen bertan, eta ondoren Ermura etorri ginen. Jende, leku eta kultura berriak ezagutzeko gogoia nuen orduan ere. Ermua asko gustatu zitzaidan, eta orain hemen bizi naiz, bakarrik.

**- Zer gustatu zitzazu?**

Lasaitasuna. Italian berebiziko garrantzia dute estetikak, janzkerak eta itxura fisikoak. Euskal Herrian ez dago horrelako presiorik, jendeak askatasu-



nez erabakitzen du dotore edo txandalarekin jantzi. Horrek pisua kendu zidan gainetik. Beste gauza batzuei ematen zaie hemen garrantzia. Bestalde, pintxoek eta paisaiek liluratu ninduten.

**- Aldaketa erraza izan zen?**

Ez, asko kostatu zitzaidan. Ohiturak antzerakoak dira, baina Mediterraneoko irla batetik nator eta eguraldia oso ezberdina da. Gainera, ez nuen hizkuntza ulertzen.

**- Londresen ere, zailtasun berdinak izan zenituen?**

Bai, baina ez zitzaidan hain gogorra egin. Bertan nengoenean ez nuen inongo loturarik, eta banekien, nahi nuenean, alde egin nezakeela.

**- Nolako harrera egin zizuten hemen?**

Oso ona, jendea oso irekia eta jatorra da. Beti daude laguntzeko prest.

**- Zer botatzen duzu faltan?**

Gurasoak, neba eta janaria. Hemen ondo jaten da, baina janari mediterraneo nahiago dut: plater arinak, entsaladak, lekaleak barazkiekin... Gaur egun ia osagai guztiak topa daitezke hemen, ricotta izan ezik!

**- Bidaiatzeko gogoia duzu oraindik?**

Egia da urteak aurrera doazela, eta heldutasunera heltzean gauzak aldatu egiten dira. Gehiago kostatzen da mugitzea. Orain, joan beharko banintz, nire sorlekura joango nintzateke seguruenik.

**- Bertara bidaiatzen duzu?**

Ez nahi beste. Ez dago urrun, baina ez dago zuzeneko hegaldirik.

**- Nola moldatzen zara euskararekin?**

Urtebete ikasten ibili nintzen; baina orain alfertasuna daukat, oso zaila delako. Zerbait ulertzen dut, baina ez dakit hitz egiten.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

**IZELAIETA, 40** Tel. 17 00 63  
**ZUBIAURRE, 12** Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Magín García, Ermuko Odol Emaileen Elkarteko presidentea:

## “Ziur nago nire odolarekin bizitza asko salbatu ditudala”

1984ko urtarrilean odola eman zuen lehenbizikoz Magín García (Lalín, Pontevedra, 1948). Hogeita hamar urte igaro dira ordutik, eta 104 donazio egin ditu ermuar honek: ez da kontu makala! Hori dela-eta, omenaldia egingo diote Bilbon ekainaren 14an, eta Ohorezko Emaile izendatuko dute. Horrez gain, hamar urte daramatza herriko Odol Emaileen Elkarteko presidente gisa. Bera da elkarteko aurpeirik ezagunena, odola ematera doazen ermuarrei hilero-hilero ongiatorria ematen diena. Magínena lan boluntarioa da; denbora eta dirua eskatzen dio, baina gustura egiten du. Hala ere, aitortzen du hobetzeko gauzak ere badaudela: 1.000 odol-emaile inguru dago Ermuan, baina gazte gehiago behar dira.

- **Odol Emaileen Nazioarteko Egunean, ekainaren 14an, hitzordu berezia duzu, ezta?**

Bai, Bizkaiko odol-emaile oparoenak detailettoa jasoko dugu Bilboko Deustu Unibertsitatean. Hamar lagun joango gara Ermutik eta bat Mallabitik. Eurek diploma eta intsignia jasoko dituzte: gizonezkoek 50 donazio egiteagatik; emakumezkoek 40 egiteagatik. Niri ere omenaldia egingo didate, baina 100 donazioak gainditu ditudanez, Ohorezko Emaile izendatuko naute.

- **Albiste ona da, ezta?**

Ez pentsa! Horrek adierazten du herriko emaileok nagusitzen goazela. Baina tira, ez dago gaizki!

- **Noiz egin zenuen lehen donazioa?**

1984an, Odol Emaileen Elkarte sortu eta handik gutxira. Berandu hasi nintzen, 35 urterekin, odola behar zela entzun nuelako. Ordu-tik, 4 donazio egin ditut urtero; gutxitan egin dut kale.

- **Eta elkartearikiko konpromiso sendoa hartu zenuen. Izan ere, urte**

**batzuk geroago, presidentea aukeratu zintuzten...**

1985 edo 1986ean hasi nintzen elkartearekin kolaboratzen, eta idazkaria izan nintzen. 2003an orduko presidenteak kargua utzi zuen eta ez zuen inork ardura hori hartu nahi. Azkenean, Bizkaiko Odol Emaileen presidentea engainatu ninduen! Pozik nago, eta beste inork bere burua eskaintzen ez badu, jarraitzeko asmoa dut.

- **Zein da zure lana?**

Donazioa prestatu, aurreikusitako odol-emaile kopuruaren berri eman, dirulaguntzak eskatu... Lan boluntarioa da, jakina.

- **Laguntzaile-taldetxoak duzu inguruan, ezta?**

Bai. 15 lagun ginen eta gaur egun 12 bat gaude, batzuk erretiroa hartu dutelako; ni kenduta, beste guztiak emakumeak dira. Batzuk bagara, baina jende berria behar dugu, beste ikuspuntu batzuk, donanteak erakartzeko ideia berriak...

- **Bai elkartean bai donazioetan, erreleboa bermatuta duzue?**



Elkartearena zalantzan ipintzen dut, ezetz esango nuke. Taldeko boluntarioek batzuetan esaten didate, nik utziz gero, eurek ere utzi egingo luketela. Ez da lan handia, baina denbora eta konpromisoa eskatzen du. Eta, noski, hemen ez da dirurik irabazten.

- **Zer aldatuko litzateke elkarteak desagenez gero?**

Ezer ez. Izan ere, herri askotan ez dago jada elkartarik. Donazioen autobusa berdin-berdin etorriko litzateke Ermura, baina jendeak kalean itxaron beharko luke,

autobus barruan lunch-a jan... Pena litzateke, jendea deserosoago egongo litzatekeelako.

- **Beraz, herritarrek esker-tzen dute zuek han egotea?**

Bai, jendea pozik dator, eta guk ilusio handiarekin egiten dugu lan. Eibarko jende dezente etortzen zaigu, eta Mallabikoak ere Ermura datoz, bertan ez baitago odola emateko aukerarik.

- **Jendea, orokorrean, odola ematearekin kontzientziatuta dago?**

Ez dakit, jendeari kostatu egiten zaio. Ez dakit orra-

**“Kide berriak lortu ezean, elkartearen etorkizuna ez dago bermatuta”**



**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12





San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

**943 17 04 04**



HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
2012 ko BILBOKO  
TXORIZO TXAPELLETAN  
BIZKAIKO  
TXAPELDUNAK  
PROBLEMA 3-943170563  
ERMUA

**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

---

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
[zuzenbidekontuak@gmail.com](mailto:zuzenbidekontuak@gmail.com)

MUGA



KONTUAK

San Pelayo 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

tzei beldurra diotelako den. Ermuan gazte asko dago, odol-emailea izan litekeena. Batzuetan bat edo bi gazte agertzen dira eta pozik gaude, baina hobetu daiteke.

**- Zenbat donazio egiten dira hilean Ermuan?**

Autobusa hileko 3. ostegunean dator Ermura, eta, batzaz beste, 70-75 donazio egiten dira aldi bakoitzean. Gainera, 2 hilean behin, Patxi plazan egoten gara eta 3 hilean behin, Sallabenten.

**- Zein da odol-emaileen perfila?**

Emakume ugari dago, gizonak baino gehiago akaso. Adinari dagokionez, 40 edo 45 urtekoak dira asko eta asko. Jendea berandu kontzientziatzen da, baina behin hasita, eusten diote.

**- Odola emateari beldurra dion jendeak ere odola ematen du?**

Bai, askori ez zaizkie baxterez gustatzen odola eta orratzak. Sekulako meritua dute!

**- Gehiegizko adina dago odola emateko?**

Bai, 65 urte. Medikua baimena eman diezazuke 67 urte bete arte donatzen jarraitzeko. Hala ere, 65 urte-tik gorakoei gomendatzen diete urtean 2 edo 3 bider bakarrik donatzea (4 aldiz izan beharrean).

**- Azaroan 66 urte egingo dituzu. Odola ematen jarraitzeko asmoa duzu?**

Bai, medikuak ez dit momentuz trabarik ipini.

**- Zenbat odol ateratzen da donazio bakoitzean?**

Litro erdi.

## “Sekulako meritua dute, beldur izan arren, odola ematera datozenek”

**- Kalkuluak ateratzen baditugu, litro erdi bider 104 donazio...**

Odol asko eman dudala pentsa daiteke. Baina kontuan izan behar da ateratzen dizuten poltsatik ez dela dena aprobetxatzen. Hainbat prozesuen ondoren, erdia baino gutxiago gertatzen da erabilgarri. Gainera, gibeledu transplante batean, esaterako, 10 litro inguru behar izaten dira. Bestalde, odola iraungi egiten da 42 egunetan, ezin da betiko gorde, eta iraungitzeaz dagoenean, medikamentuak egiteko erabiltzen dute. Odola ez da sekula botatzen.

**- Inoiz pentsatu izan duzu zertarako erabili den zuk emandako odola?**

Ziur nago odola benetan behar izan duen jendeak jasotzeko, bizitza asko salbatu izana espero dut. Borondaterik onenarekin egin dut.

**- Gaur egun anbulatorio zaharrear dago elkartearen egoitza (Bizkaia etorbidean). Beti egon zarete bertan?**

Ez, hamaika lekutan egon gara! Hasieran apaizen etxe ondoan egiten ziren donazioak, gero anbulatorioan, jubilatuen etxean plazan eta Erdikokalen, Gurutze Gorriko lokalean VI Menduerrera kalean... Duela 12 urte inguru, herriko familia batek utzi zigun egun dugun lokala. Eskerrak ematen dizkiegu bihotzez Cid sendiari eta Maria Dopazori.

**- Ezinbesteko laguntza duzue hori?**

Bai, eta bakoitzak ahal duen neurrian kolaboratzen du. Ambrosia okindegiak Arantzak, adibidez, ogia ematen digu hilero eta eskertzen diogu. Izan ere, odola eman nahi ez dutenek, edo ezin dutenek, elkartearekin kolabora dezakete: konpainia egiten, ideiak ematen edo luncha prestatzen, adibidez. Odola eman eta gero, odol-emailek jaten dituzten mokaduak boluntariook prestatzen ditugu, nork bere etxean. Baten batek jateko zerbait edo tortilla ekarri nahi badu, ongi etorria izango da eta benetan eskertuko diogu!.

Dorleta Vidal



San Pelayo ikastetxe  
3. eta 4. mailako umeekin,  
bisita batean

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORINDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Artisau-pizzak · Etxeko razio eta postreak

**ZUTIK PIZZERIA**

**Etxera eramango dizugu!**

**943 17 67 74**

Ostiral eta larunbatak: 20:00-00:00 / Igandeak: 20:00-23:00

**GEREA 2014 - SAN ADRIAN JAIXEK**

- Ekainaren 16a, astelehena. San Adrian egune:  
12:00etan: mezie.  
Ondoren: pintxuek.
- Ekainaren 20an, barikue:  
19:00etan: txopue jasotzie.
- Ekainaren 21ean, zapatue:  
16:00etan: umien txokolotadie.
- Ekainaren 22an, domekie:  
11:00etan: mezie.  
Ondoren: bertsolarixek.  
Jarraian: Mallabiko Gazte Alai dantza taldean saieue.  
Goiza amaitzeko: txokor batzie gaztetxuentzat.  
18:00etan: Asto Probak.  
Amaitutekuen: rifa zozketako zenbakixe atarako da.

**EKINTZA UGARI FUTBITO TALDIAN ESKUTIK**

Ekintza ugari antolatu dauz Mallabiko futbito taldiek datozen astietarako. Esate baterako, maiatzaren 24en hasitte eta 31a bittarte, Mallabia Cup, eskolar teko areto futboleko txapelketa jokuen da. Kategorixa des-

berdinetako 500 bat hurrek parte hartuko dabe lehiaketa honetan. Horrez gain, Euskararen aldeko futbito maratonia be antolatu dabe ekainaren 6, 7 eta 8rako. Honetan 15 urtetik gorako 12 jokalaridun taldiek izena emon ahal izengo dabe, 70 euroren truke, ekainaren 4a bittarte. Irabazlientzat sarixek 600 euro, 400 euro, 250 euro eta 150 euro izengo die. Frontenis zalientzat be bada aukerarik, herriko frontoien jokatu dan binakako frontenis txapelketan. Honetarako izena emoteko epie ekainaren 15a bitartete egongo da zabalik. Eta tenis txapelketa be antolatu dabe, ekainaren 23tik aurrera jokatu dana. Interesa dukenak ekainaren 19a bittarte izena emon leike. Lehiaketa guzti honetan izena emon edo informazio gehixaurako ondorengo telefono zenbakire deitu: 669028718. (Argazkian, 2012ko frontenis txapeldunak).

**SATXIBUK ANTOLATUTE UDALEKUEK MALLABIN**

Mallabiko Satxibu aisialdi elkartiek udaleku irekixek antolatu dauz datorren ekainaren 30etik, uztailaren 18re bittarte. 4 urtetik 14 urterarteko umiek

izena emon ahal izengo dabe, eta astelehenetik ostiralera 9:30-13:00 izengo da udalekuon ordutegixe. Izena emoteko orrixek eskolan, kultur etxien edo udaletxien eskuratu leikez, eta ekainaren 3e izengo da apuntatzeko azken egune. Arin ibili, lehenengo 50 umerentzako lekue bakarrik dau eta! Argibide edo informazio gehixaurako deittu zenbaki honetara: 616346237 / 619811629.

**SATXIBU AISIALDI TALDIEN BEGIRALIEK APUNTATZEKO EPIE ZABALIK**

- Maiatzaren 19tik ekainaren 6ra.
- Eskera orriak Kultur Etxien bete.
- Baldintzak:  
18 urte izatie.  
Euskara maila ona izatie.  
Herrixe ezagutzie.
- Kontutan hartuko da: Aisialdi taldietan edo udalekuetan esperientzia izatie, begirale titulue edo antzekue izatie.
- Aurkeztu beharreko agiriak:  
Curriculumak.  
NAN fotokopia.  
Ikasketen ziurtagiriak.  
Euskara maila eta begirale ikasketen ziurtagirixek.

**UDAN UME SAHARUIAK HARTZEKO "BAKE OPORRAK" KANPAINA**

Udan ume saharuiak etxean hartzeko kanpaina martxan jarri du Mallabiko Udalak. Umeak bi hilabeterako etorriko dira, ekaineko azken astetik abuztuko azken aste bittartera gutxi gorabehera. Haurrak hartzen dituzten familiak ez du inolako gastu ekonomikorik izango, ez bada haurraren elikadura edo familiarekin dauden bitartean sortu daitezkeen borondatezko beste gastu batzuk. Izena emateko epea maiatzaren 20an bukatuko da.

Izen-emate eta informazio gehiago nahi izanez gero, jarri zaitezte harremanetan Udaleko Ongizate Sailarekin 943171461 zenbakian.



\* Burdindegia  
\* Tresneria  
\* Sarrailagintza  
\* Giltzak / Aginte automatikoak  
\* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak  
\* Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreteriaanboto.es



**MALLABIKO Herriko taberna**

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

943 174 952  
(asteartetan itxita)





**Maiatzak 24, larunbata**  
-Futbola benjaminak goizez eta arratsaldez eskolako frontoian. (Antolatzaileak: A.D.Mallabia F.T.)

**Maiatzak 25, igandea**  
-Futbito txiki txapelketa: 5 eta 6 urte. Goizez eskolako frontoian. (Antolatzaileak: A.D.Mallabia F.T.)

**Maiatzak 28, ostecakena**  
-19:00 Hitzaldia: Mallabia Erdi Aroan. Kultur Etxean. Hizlaria: Belen Bengoetxea

**Maiatzak 29, osteguna**  
-21:15 Biharko Izarrak XI. Txapelketa (finalaurrekoak) Udal pilotalekuan. (Antolatzaileak: Mallabia 1 Pilota Elkarteak.)

**Maiatzak 30, ostirala**  
-18:30 Iriren lagunak: "Iri Herri Anitz!" ikuskizuna Udal pilotalekuan.  
-20:00 Bertsolaritza: Begirada feminista bat (Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldeggi) Kultur etxean

**Maiatzak 31, larunbata**  
-Futbola prebenjaminak goizez eta aleanak arratsaldez eskolako frontoian. (Antolatzaileak: A.D.Mallabia F.T.)  
-20:00 Abesbatzen kontzertua Jasokundeko Andra Maria parrokiara. Partehartzaileak: Jaokunde, Mendini Abesbatzak eta Mallabiko Lagun Artea abots taldea.

**Ekainak 1, igandea**  
-11:00 Gimnasia eritmitikoa Udal pilotalekuan. (Antolatzaileak: Guraso Elkarteak.)  
-12:00 Luz Salduegiari omenaldia Zaldibarren (Udaletxeko plazan).

**Ekainak 5, osteguna**  
-19:00 Hitzaldia: Kantabriar mendietako hartzak. Kultur Etxean. Hizlaria: Fernando Garitagoitia.

**Ekainak 6, ostirala**  
-21:15 Biharko Izarrak XI. Txapelketaren finala Udal pilotalekuan. (Antolatzaileak: Mallabia 1 Pilota Elkarteak.)

**Ekainak 7, larunbata**  
-10:30 Mendi lasterketa herrikoia ume eta helduentzat (Antolatzaileak: Herri Ekimena eta Guraso Elkarteak.)

-14:30 Bazkari autogestionatua Udal Pilotalekuan (Antolatzaileak: Guraso Elkarteak eta laguntzaileak: Udala).  
-19:00-21:00 Tabernen arteko I. pintxo txapelketa.

-22:00 Morritson eta Gartzia antzerkia ludotekan. (Antolatzaileak: Orraitio Euskara Elkarteak.)

**Ekainak 8, igandea**  
-10:00 Mallabiko nekazar-artisautza azoka eta abereen erakusketak.  
-11:00 Ortuarien erenitza eta landaketa tailerra. Umeei zuzenduta MOEE-ren eskutik.

-12:00 Gazte Alai dantza taldea  
-13:00 Sari banaketa. Errigorako 3 saski eder:  
-Ortuarien posturik ederrenari  
-Baserritar jantziarik dotoreenari (Mutil-neska)  
**JANTZI BASERRITAR ETA ZATOZ GOZATZERA!**

-13:30 Herri arteko proba desafio. Orioko zortzi neska Mallabiko zortzi mutilen kontra.

**Ekainak 6, 7, 8**  
-Euskararen aldeko futbito maratona (helduak) Arkaldian. (Antolatzaileak: A.D. Mallabia F.T.)

**Ekainak 14, larunbata**  
-Gazte eguna:  
10:30 Mendi ibilbidea  
14:00 Bertso bazkaria  
16:00 Jolasak  
22:00 Kontzertuak: Pixontxis, Bazuka 1 Bakala, Aldats

-17:30 Emakume pilotari eguna Udal pilotalekuan

**Ekainak 20, 21, 22**  
-Frontenis txapelketa (bikoteka) Udal pilotalekuan. (Antolatzaileak: A.D. Mallabia F.T.)

Antolatzaileak:  
Udala eta Herriko elkarteak

**JAR ZAITEZ MARTXAN PROIEKTUA**

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako eta Udal Gaztedi hitzarmenaren barne dagoen "Jar zaitez martxan" programaren ekintzak burutuko ditu hurrengo hilabeteetan. Programa honen helburu nagusia eskualdeko gazteen aukera sozio-profesionalen kalitatea hobetzea da. Ekintza hauek Durangoko Amankomunazgoa osatzen duten herrietako 16 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Proiektua zortzi kurtso-tan banatuta dago; bakoitzak 44 orduko iraupena izango du. Informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxeko webgunean dago eskuragarri.

**ENPLEGU PLANA**

Mallabiko Udalak, Ermuko Udalarekin batera, enplegua sustatzeko toki ekintzetako laguntza-deialdian parte hartu dau. Holan, jardun osoko sei hilabeteko kontratua egingo jako herritar bati ortu ekologikoetan, konpost guneetan eta brigadari laguntzeko. Jardun erdixe Eusko Jaurlaritzatik jasoko dan diru-laguntzarekin ordainduko da eta beste erdixe Udalak jarriko dau. Kontratazioa Lanbideren bitartez egingo da eta enplegu planak berak markatzen dituen lehentasunak hartuko dira kontuan. Kontratua, berriz, Urkiola Landa Garapen elkartearen bitartez sinatuko da.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

**GAZTE Mallabiko IV. ASTEBURUE!**

Ekainak 13, barixekue  
19:00 Hankapalo tallera  
22:00 Monologue Jon Plazaolakin Herriko-Bastida landan

Ekainak 14, zapatue  
10:30 Mendi ibilaldixe (dutxak frontoien)  
13:00 Poteue  
14:00 Bertso bazkarixe  
Endika Igarzabal, Mikel Artola, Gorka Maiz ta Nerea Ibarzabalekin. (tiketak Herriko ta Bastidan)  
Gero jolasak  
19:00 Bertso triki poteue (Tabernetan pintxoek muxutruk!!)  
22:00 Kontzertuek Herriko-Bastida landan

**BAZUKA'L BAKALA ALDATS PIXONTXIS**

**BAZUKA'L BAKALA ALDATS PIXONTXIS**

**EKAINAK 9**

10:00 AYONAREN ATE IDEKITETA  
10:00 MALLABIKO ARDEEN ERAKUTKETA  
11:00 OYULARIEN ERENITZA ETA LANDAKETA TAILERRA. UMEI TUTENDUTA MOO-BEN ERUKITIK  
11:30 JAMAKUNTAKO EGITEKO ODDUA. COERDIKO TALOCHIEN ERUKITIK. NASHI DABENAK TALUEK EGITZEN INEHI. SARTU DABURUEK ETA ERKI!  
11:45 ZALDIBAN HILUTTERKO AUKERA UMEENTZAT BIDEBATUA  
12:00 GATTE ALAI DANTZA TALDEA  
13:00 SARI BANAKETA. ERDIKOBAKO HIRU SAKI EDER. OYULARIEN POSTURIK EDERENENARI. BAZERRITAR JANTZIEKIN DOTORENARI (MUTIL ETA NESKA)  
13:30 MENDI ARTEKO PROBA DESAFIOA. OROKO 3 NASKA (500 KG. KO JARRERIA). MALLABIKO 3 MUTILEN KONTEA (500KG. KO JARRERIA)  
**JANTZI BASERRITAR ETA ZATOZ GOZATZERA!**

Iberikoetan espezialistak

**Mayte**

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

Montis DQ Mouth

**DANAONA**  
IZOZTUAK ETA AURREKOZINATUAK

GOIENKALE Z/G ERMUA  
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7 ARRASATE  
Tel. 943 770 598



Descubrete

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

Teak, kafeak eta eztia.  
Belgiako txokolata.  
Eguneko tea eta gozokiak dastagarri.  
Teontziak, katiluak...

**Oparitzeko neurria egindako otzarak!**

# Luz Zalduegi, albaitari aitzindaria

**Egunotan ehun urte betetzen dira Euskal Herriko lehen emakume albaitari tituluduna Mallabian jaio zela. Luz Carbonero alaba lagun, bere ibilbide pertsonala eta profesionala ezagutzeko aukera eskaintzen digu idazki honek**

**L**uz Zalduegi Gabi-londo Aitxu base-rrian jaio zen 1914ko ekainaren 1ean. Felix aita ere mallabitarra, Udaleko idazkaria zen, neskatoaren jaiotza-agiriak erakusten duenez, eta Josefa ama, elgoibartarra zen jatorriz. Honaino edozein pertsonarena izan daitekeen biografia. Baina berea ez zen ez izan bizitza-eta lan-ibilbide arrunta, eta kargu eta izendapen esanguratsu ugari izan zituen urte-etan zehar.

Ume-umetatik eskolante ona baino hobea izan zen, bikaina, gelakideen artean nabarmetzen den horietakoa. Egunero joaten zen Zengoitteko auzo-eskolara, ttipi-ttapa, oinez, eta ondo aprobetxatu zituen, antza denez, hara egindako joan-

etorri luzeak. Adimen handiko emakumea, beste dohain ondo estimagarriak izan zituen gainera ikasketetarako eta lanerako: etengabeko langilea, txindurritxo nekazina, umila, zintzoa... Mallabian hasitako prestakuntza Gasteizen jarraitu zuen eta Madrilen burutu, 4 seme-alabei ikasketak emateko asmoz gurasoek hara joatea erabaki zutelako "neurri handi baten, gazteak zeuden lekuan egon behar zirela irizten ziotelako gurasoek", Luz Carbonero ilobaren esanetan.

Batxilergoa eta *Reválida* azterketa, unibertsitateko prestaketa zena, nota zoragarriekin amaitu ostean, Albaitaritza ikastea erabaki zuen. Une hartan 16 urte zituen. Ezusteko handia izan zen etxekoentzat bere as-

rezko hainbat matrikula eta Bikain batez besteko notarekin. Madrilgo Fakultatean dagoen dokumentazioaren arabera, Luz izan zen lehen emakume albaitari euskalduna eta Estatuko hirugarrena.

Ikasketak amaitu eta udal ikuskari-albaitarien lan-poltsan sartu zen berehala. 1936ko gerratea hasi aurretik, Marokoko Protektoraturako oposaketak prestatzeari ekin zion. Aurkezteko orduan, erretiratzeko gomendioa egin zion epaimahaiko kide batek, lan hura andrazko batentzat desegokia zela azalduz. Hurrengo urtean debekatu egin zitzaizen emakumeei oposaketa hartara aurkeztea. Gerrate garaian Euzko Jaurlaritzaren jantoki sozialetako ikuskari lanpostua eskaini zioten. 1937-39 bitartean Bermeo eta Eibarko udal-ikuskari-lanak burutu zituen 1940ra arte, Leandro Carbonero unibertsitateko gelakidearekin ezkontzeko dimititu zuen arte. Ordurako Zaldiraren bizi ziren jada Zalduegitarak.

## Ez gutxi kostata

Marokoko Alcazarquivirren biziko zen urtetxo batzuk bikote ezkonberria, bertan

lortu baitzuen Leandro albaitari plaza. Senarraren ordezkio lanak egiten zituen Luzek hiltegi edo hiriko zocoan okelak ikuskatzen, hura kanpoan zegoenean animaliak atenditzen, bakunak jartzen edo beharrezkoa zer edozertaz arduratzen. Madrilera bueltan Albaitarien Kidego Nazionalerako oposizioak prestatzeari ekin zioten biak.

Bere lanbideari lotuta, garrantzi handiko eta mailarik goreneko karguak bete izan zituen: Madrilgo Abeltzaintzako Buruzagitzako buruorde, Barajaseko aduanako ikuskari, Nekazaritza Ministerioako Abeltzaintzako Estadistika Saileko ardura-dun, Nekazaritza Kontseilu



moa, karrera hura animalia handiekin lan egitekoa baitzen sasoi hartan. 1935ean amaitu zuen oho-

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**J. LUCAS**

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!!


Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Goreneko lehendakari, hau erretirora arte... Beti ez, baina, erraztasunik handienekin. Alaba Luzek amaren berbak ekartzen dizkigu gogora: "Neskie bazara zeure balixue erakutsi bihar dozu. Nik izerdi franko botata lortu dot dakadan guztie". Di-sekzio geletako praktikak, hango hotza, animalia hilak, haien gorpuen hatsa... barru gogorrekoa izan behar nahitaez! Andrazkoa izategatik erraztasunak jarri zizkiotela trufaka esaten zionik ere topatu zuen. "Hori pentsatzen ebela, bai, eta gehixao apremixau nintzen: ongiak eta bikainak etarako dittut ba!". Erabaki sendoa berea!

Madriren bizi eta bertan egiten zuen lan, baina oporrrak sakratuak ziren: "Zaldibarrera tropa guztiarekin!" Beti mantendu zuen han bere etxea, bere lagunak, bere afektuak... Per-

tsona ezaguna eta maitatua zen bertan. Eta Zaldibarko-arekin batera, saihestu ezin-neko urteroko beste zita bat: Andra Mari egunean Mallabira etortzea, Meza Nagusira, eta haren ostean batekin berba egin, bestearen berri izan... Ez zen sekula ahaztu bere jendeaz, "mi gente" esaten zuen Euskal Herriarekin zerikusia zuen edozer adierazteko. Luz alabaren esanetan: "Beti presente izan zuen lur hau eta itsu-itsuan defendatzen zuen. Arazoren bat aipatzen genuela, esate baterako, droga konturen bat... berak ezetz! Hemen dena perfektua zen, bere jendearen artean ez zegoen ezer txarrik. Haren baten distantziagatik-edo, nolabait idealizatuta zuen". Urteetan gorde izan zuen bere eusker eta ama Josefa Madriren eurekin bizi zela ere, Luzen akorduz, berak eta bere hi-



ru anai-arrebek ez zuten beste hizkuntzarik erabiltzen amamarekin.

Azalpen biografiko luze eta aberatsak topatu ditugu berari buruz albaitaritzaz hitz egiten duten hainbat argitalpenetan: Jose Manuel Etxanizen *Albáitares y veterinarios municipales de Eibar (1877-1977)* liburuan esaterako, edota Francisco Dehesa eta bere lantaldeak idatzitako *Semblanzas vete-*

*rinarias* lan mardulean. Ugari dira gainera bere izena Interneten klikatuta agertzen diren aipuak.

Ekaineko lehen igande hori aitzaki zoragarria izango da senide eta lagunak berriro elkartzeko. Omenalditxo bat egingo diote Zaldibarren; xumea, diskretua, zarata gutxi-koa izatea nahi dute... Luz bera bezalakoa, berari gustatuko litzaiokeen modukoa.

Estibalitz González



KOMERTZIO AISIA ETA KULTURAREN

# GAUA ZABALIK

Zabalik Abierto

komertzioak zabalik

22.30 - 01.30 h.

ERMUA

EKAINAREN 14an





**Ermua centrocomercial**  
ERMUKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE ERMUA

# Mintzodromoa egingo da Ermuan ekainean

13:00etan abiatuko da plazan Ermuko lehen Mintzodromoa, ekainaren 7an. Horren helburu nagusia da euskararen praktikaren sustapena, eta 150 lagunek parte hartzea espero dute antolatzaileek. Ordu eta erdiko iraupena izango du ekitaldi honek; bitartean, edariak eta mokaduak zerbitzatuko dira.

Duela urtebete ekin zioten Euskal Herriko hiriburuak mintzodromoak antolatzeari —eta herri gutxi bartzuk ere—, eta ekainaren 7an Ermuan ere burutuko da mintza-saio erraldoi bat.

Goizean goiz karpak muntatuko dira plazan, eta 25 mahai eta tabernatxoak ipiniko dira bertan. Euskaraz hitz egiteko gai den 16 urtetik gorako edozein ermuarrek parte hartu ahal izango du ekimen honetan, eta 150 lagunentzako lekua egongo da. Aipatutako mahai bakoitzean

euskaldun oso bana egongo da eta gainontzeko parte hartzaileek, bosnaka taldekatuta, mahairik mahai joango dira, gai ezberdinez hitz egiteko xedearekin (jaiak, zaborra eta euskara). Txanda bakoitza bukatutakoan, bost laguneko talde horretako ki-deak mahai ezberdinetan sakabanatuko dira. Bitartean, edariak eta mokaduak zerbitzatuko dira doan.

Praktika egitasmoen arduraduna den Juanmi Bravoren esanetan, ekimen honen bi helburu ditu: “Alde

batetik, euskararen praktika sustatu nahi dugu. Jendea kontzientziaztea, eta erakustea Ermuan euskaraz hitz egin daitekeela. Bestalde, Ermuko Euskaldunak harremanetan jarri nahi ditugu. Horregatik egiten dira errotazioak: bistaz ezagutzen diren pertsonak euskaraz hitz egin dezaten”.

Parte hartu nahi dutenek maiatzaren 31 baino lehen eman beharko dute izena (Berbalagun: 639414205; Udal Euskaltegia: 943170925; Kaltxango AEK: 943171940; ermua\_berba@ae.org).

Ermuko praktika egitasmoak antolatutako ekimena da eta hurrengoan laguntza du: Udal Euskaltegia, Kaltxango AEK Euskaltegia, Euskal Birusa, Ermuko Udala, Gazte Asanblada eta Ermuko Merkataria eta Ostalarien Elkarte. Animatu eta parte hartu!

## IES UNIBHI

### HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA MAIATZAREN 27TIK EKAINAREN 6RA

#### HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

- HEZIKETA FISIkoa
- INFORMATIKA
- MARKETING ETA MERKATARITZA
- ADMINISTRATIOA

#### **+** PROIEKTUAK

- PRAKTIKAK ATZERRIAN
- HEZIBI - LANBIDE HEZIKETA ALTERNANTZIAN
- IKASKUNTZA ESZENATOKIAK
- OSASUNARENTZAKO PROGRAMA
- ENPRESA BIRTUALA
- UNI ENCOUNTER
- URRATS BAT

www.iesunibhi.com  
uni@iesunibhi.com  
TEL: 943 20 84 44

www.facebook.com/iesunibhi  
 @UniEibarErmua



# UDAL EUSKALTEGIA

2014ko UDA  
**MATRIKULA ZABALIK**



## IKASTARO TRINKOA IRAILEAN

Azterketak urrian

**EDUKIAK**

**Maila guztiak**

- |                  |       |
|------------------|-------|
| 1.Maila (B1)     | = 1HE |
| 2.Maila (B2)     | = 2HE |
| 3.Maila (C1) EGA | = 3HE |

**NOIZ**

Irailaren 1etik 26ra

**ORDUTEGIAK**

9:00etatik 13:00etara (80 ordu)

16:00etatik 20:00etara (80 ordu)

**MATRIKULA ZABALIK UZTAILAREN 3ra ARTE**

***Udal euskaltegia, bertan gaituzu!***

Bulego orduak: 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

**Teresa Murga Eraikina**

**Goienkale z/g, 2. solairua**

**☎: 943170925**

**euskaltegia@udalermua.net**

**<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>**

**EKAINAREN 9TIK  
15ERA EGINO DIRA  
XIV. JARDUNALDI  
GASTRONOMIKOAK**

Ekainaren bigarren astean gauzatuko dira aurtengo Jardunaldi Gastronómicoak. Pintxo lehiaketa 9tik 15era egongo da martxan, herriko hainbat tabernatan; azoka gastronómicoa, berriz, hilaren 14an egingo da Orbe Kardinalaren plazan. Lobiano Gastronomia Elkarteko kideek egitaraua lotzen dihardute.

**LAGUNTZA  
TEKNOLOGIKOAK  
EKAINEAN**

Udal Liburutegjak zerbitzu berria abiatu zuen maiatzean: gailu teknologikoei buruzko zalantzak argitzeko zerbitzua, hain zuzen ere. Interesa dutenek hitzordua eskatu beharko dute ekainaren 5ean edo 6an egingo diren saioetan parte hartu ahal izateko.

**AEK-k 4. maila eskaini du aurten Ermuan**

Ermuko Kaltxango AEK Euskaltegiak 4. maila egiteko aukera eskaini du aurten estreinakoz. Berrikuntza izan da –bai ermuarentzat, baita eskualdeko herritarrentzat ere–, Debabarreneko gainontzeko herrietan ez baitago ikastaro hori egiteko aukera. Euskarazko 4. maila egin ahal izateko EGA titulua (edo baliokidea) izan behar dute ikasleek eta horren helburua da “euskara maila zaindua lortzea, 4. perfila prestatzea edota lanerako gaitasun komunikatiboa hobetzea”, arduradunek aditzera eman dutenez.



Lehen ikastaro honetan zazpi ikasle aritu dira (hiru irakasle, bi abokatu, funtzionario bat eta kazetari bat), hainbat herritatik etorritakoak: Ermutik, Eibartik, Markinatik eta Zaldibartik. Ikasleek 2013ko urrian ekin zieten klaseei, eta ekainaren 3an bukatuko dituzte.

Bederatzi hilabete hauetan 150 eskola-ordu izan dituzte euskaltegian; horiez gain, proiektu bana idatzi behar izan dute. Horietako batzuen izenburuak dira: *Trantsiziozko justizia, Atazetan Oinarritutako Ikaskuntza, Bigarren hizkuntzaren jabekuntza* edota *Debabarreneko komunikabide bateratua martxan jartzeko proposamena*. Ikasleek 6 hilabeteko epea izan dute proiektuak idazteko, eta 8 tutoretza izan ditu bakoitzak irakaslearekin, testuak bideratzeko laguntza jasotzeko.

Proiektua egitea ezinbesteko baldintza da ikastaroa gainditzeko eta egiaztatze-probara aurkeztu ahal izateko. Izan ere, zazpi ikasle horietatik lauk lortu dute azterketako lehen deialdira aurkeztea (idazmen-probaren emaitzen zain daude orain).

2014-2015 ikasturtean ere, euskarazko 4. maila eskaintzeko asmoa du Kaltxango AEK Euskaltegiak, eta irailean zabalduko du matrikulazio-epea. Interesa dutenek, bertara jo dezakete: aldezturitik, 943 17 19 40 telefonora deitu edota kaltxango@ae.org helbidera idatzi.

**ZURE UNEA DA, ZURE ETORKIZUNA DA,  
ZURE LANA DA!**

**Matrikula zaitez  
Lanbide Heziketan!**



IEFPS-GLHBI  
**ArmeriaEskola<sup>x</sup>**

**EIBAR**

Izenematea:

Maiatzaren 27tik ekainaren 6arte

Tfnoa. 943 20 32 44 - eibar@armeriaeskola.com



**www.armeriaeskola.com**

# Ermuko euskeriaren aditz-taulak eskuragarri

Jata, doskue, gintzonazen... horrelakoxe aditzak ditxu Ermuko euskeriak eta ikasi edo kontsultatu nahi dabenean edonork oinguan ez daka atxakiarik: Fernando Aranberriren *Ermua eta Eitzako euskara* liburua oinarri hartuta, Badihardugu Euskera Elkartiak bertoko aditz-taularen liburuxkia argitaratu barri dau eta erretz lortu leike. Haren aurkezpenian egon giñan eta Fernando beraren eta Badiharduguko Aintzane Agirrebeñaren eskutik lan honen nundik norakuak ezagutu genduzen.

## D. Zelan sortu zan liburuxka hau eitxiaren egitas-mua?

A.A. Badihardugu Euskera Elkartia 2000. urtian sortu zan euskalkixa batzeko asmuakin eta Deba Arroko 17 herrixak hartzen ditxu. Hasiara samarrian jarri zan martxan aditz-taula bilduma bat osatzen juatiaren asmu. Nahi genduan zeozer erabilgarrixa kaleratzia, kontsultarako balixo ebana, ahozkorako zein idatzirako. Sarririxan nahastu eitxen dogu euskalkixa, batua... eta aiba, zein da guria? Honék horretan lagunduko zoskun. Formatu honekin 10 herrixetako aditz-taulak jaso dira eta 2013an Ermukuekin hasi giñan. Fernandok bazitxuan bere libururako jasota eta guk horretxek hartu ditxugu oiñarri modura. Beronekin batera, Asier Sarasuak, Juan

Martin Elexpuruk eta Serafin Basaurik jardun dabe honetan. Osatzeko, barriz, Eibar-ko aditz-taulen liburuxka eta Mallabikua, Pello Mugarzak eindakua erabilli dira.

## D. Ermuko euskera liburua orduan itxurri nagusixa...

F.A. Bai, Badiharduguk proposatu zoztan eindako lana barriro gainbegiratzia eta, bailara maillan markauta dakezen erizpideei jarraitxuta, zuzendu eta osatu ein dogu. Liburua 1996an argitarau zan eta bertan Ermuko euskeriaren corpus osua jaso zan: deklinabidea, aditza, kontsonantismua, joskeria... Niretzat liburuxka honek, dakan balixuetako bat da hikako formak batzen ditxuala.

## D. Lan erretza da, gatxa...?

F.A. Aditza batzia oso gatxa da. Bilketa-lana eitxia da gatxena. Hiztunak ondo menderatu bihar ditxu euskera



eta gaztelania: gaztelaniaz emoten dotsazu esaldi bat, forma bat, eta euskeratu ein bihar dau. Batzutan astuna be izan leike, etengabian bonbardiatzen zagozalako. Ez da istorio bat kontatzia, arratsalde osua biderketak eitxen egotia modukua da! Beste alde batetik, hiztunak badakaz baliabidiak beste modu batera esateko eta horretxek, ohikuenak eta erabilienak diranak lehelengo ilaran agertzen dira beti. Akordura ekartzen dotsazunian formaren bat, sarri entzun izan dot: "Bai, hori beti erabiltzen dogu!". Beti erabiltzen dabe, baina ez dabe se-

kula esaten! Nik argitaratu neban garaian oso barriemoile onak zeuazen, apenas kutsatu bakuak asko eta jende aditu asko be bai.

## D. Zelan banatuko da?

A.A. Herriko Euskera Elkarteko bazkideei banatzen jakue lehelengo, eskoletara eta liburutegira gero... Lortzerik ez dakanak, Euskal Birusa edo Badiharduguren bitxartez eskuratu leike. PDF-ia, honen [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) webgunian, argitalpenen atalian egongo da eta Ermuko Udaleko Euskera sailak loturia egingo dabenez, handik be deskargau ahal izango da.

Estibalitz González

## KRABI

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56
Diputazio, 5
ERMUA

## ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako  
odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1  
48260 - ERMUA
Tel. 943 10 85 44  
Mug. 678 64 85 41

## Proba-Leku

Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

## PUB YOMY

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

## SAGARDUI poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

# SABINO ITURBE "BINBO"

- *Nolako gaztaroa izan zenuen?*

Gu Amaña auzoan hazi ginen, lanera etorritako etorkinez inguratuta. Gure ama nafarra zen eta aita bizkaitarra. 4 anaia izan gara eta gaztetako oroitzapenak onak dira.

- *Ikasketetan zer moduz moldatzen zinen?*

Armeria eskolan 2 urtez aritu nintzen, baina ikasketarako zaletasun gutxi nenez, 18 urterekin lanean hasi nintzen eskopetak egiten Laurona enpresan.

- *Nola ezagutu zenuen zure bikotea?*

18 urte inguru genituen, San Juan jaiak, parranda...

- *Biok eibartarrak izanda, nola etorri zineten Ermura?*

Nik aspalditik nuen Ermuan koadrila, lagunak eta adibidez jubencil mailako Ermua futbol taldean ere 2 urtez aritu nintzen. Ingurune ezaguna zen guretzat.

- *30 urte bete berri dituzuen tabernak.*

Gogoan dut ireki genuen eguna. Euskal Jaia pasa berri zen, Athletic-ek Liga eta Kopa garaipenak... garai beroa.

- *Garai gazi-gozoek ere izan dira tartean.*

Oro har oso pozik gaude urte hauetako ibilbidearekin. Dena den, 5-6 urte oso gogorak pasa geni-



**Eibarko Amaña auzoan jaio zen duela 58 urte. Lau anaien artean gazteena. "Binbo" ezizenarekin ezaguna eta jada 30 urte daramatza Ermuko Txalaparta taberna gidatzen. Athletic zale amorratua, udara sasoiari Conilera joatea du gustuko. Gizon lasaia eta hiztun fina.**

tuen. Eskertu beharra daukagu bezero asko emandako laguntza eta izandako fideltasuna.

- *Ostalaritza asko aldatu da?*

Erabat. Jendearen ohiturak, aisialdia asko aldatu da eta guk ere egokitu egin behar izan dugu negozioa.

- *Duela 5 urte bihotzekoak eman zizun.*

Amaren hiletatik etorri berritan. Abisua izan zen eta bititza pixka bat al-

datu zitzaidan arren, ondo nago. Urtero azterke ta egiten dut.

- *Zeintzuk dira zure zaleztasunak?*

Perretxikoak batzea eta kirola, futbola eta esku pilota ikustea.

- *Athletic...*

Urteetan zale amorratua izan naiz, baina gauzak asko aldatu dira futbol munduan ere. Dirua, interesak... Dena den, bazkide izaten jarraitzen dut.

- *Jaiki eta egiten duzun aurreneko gauza?*

Dutxa bat hartu.

- *Zerk jartzen zaitu sutan?*  
Gauzak okertzen direnean, arazoak ditudanean.

- *Bidaia bat nora?*

Finlandiara.

- *Jateko plater bat?*

Bakailoa pil-pil erara.

- *Miresten duzun pertsona...*

Jon Idigoras.

- *Abeslari bat?*

Mikel Laboa. Urteetan Hegoak abestiarekin izaten genuen taberna.

- *Parranda bat...*

Bilboko jaietan edo bes-tela txosnak dauden edozein herritan.

- *Pelikula zalea zara...*

Western edo akziodun filmak batik bat ditut gustuko. Aktore bat esatekotan, Robert de Niro.

- *Euskal Herriko txoko bat..*

Belagua, Izaba, Nafarroako Baztan.

- *Zer falta du Ermuak?*

Arnasa, aske egoteko lekuak.

- *Euskal Herriko egoera politikoaz zer iritzi duzu?*

Eman diren urratsak ondo iruditzen zaizkit eta baikorra naiz. Bakea laster iritsiko zaigula uste dut.

- *Tabernan noiz arte egongo zara?*

Eskaintza on bat jasoz gero, gaur bertan utziko nuke. Tamalez ez digu inork ezer eskaini.

Asier Ibaibarriaga



**CITROËN  
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Komunitateak

**San Pelayo**

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



Javier Sánchez, XIX. Federico Martín Bahamonteseko bertako irabazlea:

## “Lasterketa gogorra da, entrenatzean dago koska”

Maiatzaren 18an burutu zen aurtengo Federico Martín Bahamontes txirrindulari martxa. Aitor Hernándezek lortu zuen garaipena (3.19), baina profesionala denez, Javier Sánchez Txurruka ermuarrari egokitu zitzaion bertakoen lehen saria (3.25). Saiklapen orokorrean 8.a izan zen.

- **Zertan datza proba hau?**

130 kilometroko luzera du, eta tartean Milloiko, Etxegaraiko, Ixuako, Areitioko eta Trabakuko mendateak igo behar dira. Oso gogorra da.

- **Eta zein da ondo ibiltze-ko gakoa?**

Asko entrenatzea eta lasterketaren bukaerarako indarrak gordetzen jakitea. Daukazun bizikletak ez du horrenbeste garrantzirik, pedalak ematean dago koska.

- **Zenbat entrenatzen duzu?**

Astean bost edo sei egun. Astegunetan, bi ordu eta erdi inguru; asteburuetan, lau ordu eta erdi edo bost ordu. Inguruko txirrindulari profesionalekin entrena-tzen dut: Amets Txurruka, Markel Irizar, Aitor Hernán-

dez... Eta afizionatuekin ere, Goikoetxea anaiekin esaterako. Neguan, gimnasia joaten naiz.

- **Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak?**

Hainbat lasterketatan parte hartuko dut: Covadonga-ko lakuak, Quebrantahuesos, Euskadi Extrem eta Ezkaraiko martxan. Aurretik, Monegroseko lasterketan egon naiz.

- **Aurten ekin diezu horrelako lasterketei?**

Ez, hiruzpalautan egin dut Quebrantahuesosa eta zenbaitetan aritu naiz Euskadi Extremen, Bahamontesen eta Pax Avant-en. Batzuk errepideko bizikletarekin egitekoak dira eta besteak mendiko bizikletarekin.

- **Zein nahiago duzu?**



Azkenaldian mendikoarekin ibiltzen naiz gehiago.

- **Zenbat denbora daramazu txirrindularitzan?**

Bizitza guztia. Lehen lehiatu egiten nuen, baina 20 urte inguru bete nituene-tik afizionatu gisa ibili naiz.

- **Aitor Hernándezekin harreman estua duzu, ezta?**

Bai, ziklokros-denboraldian (urritik urtarrilera) bere laguntzailea naiz. Gustura egiten dut.

Dorleta Vidal

### Lasterketaren datuak

Ermuko Gaztela-Mantxako Zentroak antolatzen duen lasterketa hone-tan, Aitor Hernández izan zen garai-lea. Bere atzetik, Iñaki Aiarzabuena (3.21) eta lakes Gisasola (3.22), hurrenez hurren. Guztira, 176 txirrindularik eman zuten izena, antolatzaileen arabera, tartean 3 neskek. Batek bukatu zuen proba: Paula Gomezek (4.30).



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**Pub Dakota**

Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**Pub SCORPIO**

Zubiaurre, 21  
ERMUA

**OUTUMURO**  
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

# Ume saharaien abegi-etxea Ermuan

**G**aixorik dauden saharaientzako abegi-etxeen estatuko X. Jardunaldiak egin ziren Ermuan maiatzaren 9an, 10ean eta 11n. Ermuak badu osasun-arazoak dituzten Saharako umeak jasotzeko pisua, eta horregatik aukeratu da gure herria jardunaldi hauen egoitza gisa. Pisu horretan, diagnostikoak, tratamendu medikuak eta ebakuntza kirurgikoak behar dituzten umeei babesa ematen zaie, Saharako Errefuxiatu Kanpamentuetatik datozenean. Tindufeko basamortuko kanpamentuetan, jakina, ezinezkoa litzateke horiek guztiak egitea.

Ermuko Udalak diru-laguntza ematen du umeen egonaldia, osatua, mantenua eta ospitalera bidaiak ordaintzeko, besteak

beste. Gainera Saharako den zaintzailea dute umeek hemen, eta berak egiten ditu itzultzaile-lanak. Saharako Herriaren Lagunak elkarteko boluntarioak arduratzen dira umeak ospitaletara laguntzeaz; Osakidetzak, berriz, erantzuna ematen dio alor medikuarekin zerikusia duen guztiari. Bestalde, eskolara joateko adina duten umeek -euren gaixotasunaren arabera-, eskolara joaten dira.

2000. urtean ekin zitzaion programa honi, eta igaro diren urte hauetan, gaitz ezberdinak zituzten hamaika mutiko eta neskato egon dira pisuan: kardiopatiak, jaiotzetiko begi-lausoak, glaukoma, giltzurrunetako arazoak eta tumoreen erazketak, besteak beste. Aldi berean, gero eta zailtasun handiagoak ipintzen joan



*Maria Rosario Arrizabalaga*

da gobernu espainola (pasaportekak, bisak...); horiei irtenbidea aurkitu behar izan diegu, eta gaur egun ere, lan handiarekin, konponbidea aurkitzen jarraitzen dugu.

Bukatzeko, azaldu nahiko nuke egoera honen jatorria zein den: Mendebaleko Saharako eremuan, legez kontrako okupazioa egiten ari da Maroko, eta Herri Saharaiarrak autodeterminazio-eskubidea erabili ahal izateak gatazkari amaiera emango lioke. Izan ere, hori diote nazioarteko legeek, eta Sahara da deskolonizatu barik geratzen den Afrikako lurralde bakarra.

**Gaixorik dauden umeak tratatzea ezinezkoa litzateke basamortuko kanpamentuetan**



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
 Tel. 943 17 66 34  
 Tel. mugikorra 630 01 13 41  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
 Tel. 943 17 98 60  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
 tel./fax: 943 17 07 33




**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Giltzak
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Brikolajea
- \* Kit altzariak
- \* Enrailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA




Ekainaren 10ean  
Zorionak amatxo zure seme-alaben partez. Aurtengo oparia: Eguzkia eta beroa.



Maiatzaren 23an  
Zorionak Aratz!!! 7 bider belarritik tira egingo dizugu. Ondo pasa zure eguna.



Maiatzaren 24an  
Zorionak printzesa zure 5. urtebetetzeari. Besarkada eta musu potolo bat zure familiaren partez.



Apirilaren 30ean  
Zorionak Maule zure 7. urtebetetzeari maite zaitugun guztion partez.



Maiatzaren 13an  
Zorionak Martina aitite-amama eta familiaren partez. Muxu handi bat.



Maiatzaren 31an  
Zorionak Olatz "txokolatera" zure 6. urtebetetzeari. Patxo handi bat zure familiaren partez.



Maiatzaren 6an  
Zorionak Kimetz zure 4. urtebetetzeari Irati, aita eta amaren partez. Musu handi bat.



Ekainaren 21ean  
Zorionak Iraia eta musu handi bat aita eta Amaiaen partez.



Ekainaren 15ean  
Zorionak Aiala zure 3. urtebetetzeari aitatxo, amatxo eta Lukenen partez. Musu handi bat eta ondo pasa zure egunean.



Ekainaren 17an  
Zorionak Aner zure 7. urtebetetzeari. Ondo pasa familia guztiaren partez, bereziki Ane eta Irama lehengusinen partez.

**Hurrengo zenbakirako azken eguna:**  
**EKAINAREN 16a**

hamburguesería  
**TITANIC**

*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

optika  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**ILEAPAINDEGIA**

*Traskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**

**T**XALAPARTA  
ABERNA

**Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 **ENKARGYAK**  
(Ermua) **943 030 299**

**Enter**

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**MALLABIA  
1966**

Argazki hau Mallabiko plazan aterata dago, 1966ko apirilaren 10ean. Bertan agertzen dira: Sabina Mallabia, Blanca Uriarte, Begoña Urkidi, Maria Luisa Uriarte, Mari Tere Abendibar eta Mari Asun Uriarte.

**ERMUA  
1960**

Fina eta M<sup>a</sup> Luz Feijoó Garridok Lehen Jaunartzea egin zuten maiatzaren lehen egun horretan; haiekin argazkian M<sup>a</sup> Carmen ahizpa txikia eta Lucita eta Manuel gurasoak. Sasoiko modara, lurrerainoko soineko eta belo luzeak daramatzate eta poltsatxo bat errekordatorioak gorde eta haren truke emandako sosak gordetzeko. Mutilak balira, trajeatuta edo marinetxoz. 1964 urtean satin distiratsuko tunika batzuk janztea erabakiko zen, hori bai, neskak larrosaz eta mutilak urdinez. Oihal maskala zela-eta 1971an tunika zuri batzuk egiteko tela sendo bat ekarri zen Bilbotik, metroka erositako bakoitzak berea josteko. Betirako! Orduetik Ermuan Jaunartzea egin duten neska-mutikoeke modelo berori jantzita joan dira elizara.

\* Ahaleginak eta bat egin arren sail honetarako izen-abizenak, datak eta gainontzeko informazioa biltzen, lantzean behin taka! Okerreko datua jartzen dugu. Aurreko alean Juani García zen eta ez Elu bere ahizpa erretratuan txiki-txiki agertzen zena eta data 1968.

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)



**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**Urte eta erdi igaro da bosgarren kontainera jarri zenetik; orduan, 2.623 ermuar hasi ziren erabiltzen. Orain, zaborren fakturan 2'6 euro aurrezten direla jakinda, 1.183 ermuar gehiago hasi da kontainer marroia erabiltzen.**

**Hasieratik erabiltzen duzu kontainer marroia edo orain hasi zara?  
Ondo moldatzen zara? Zerbait hobetuko zenuke?**



Etxean lehenengotik eman genuen izena eta asko erabiltzen dugu, erabiltzen hasi aurretik ez genuen uste hainbeste gauza sartuko zirenik. Sistema erraza da, eta ondo iruditzen zait kontainera giltzarekin zabaldu behar izatea. Azken finean modu bakarra delako zabalik ez geratzeko eta usainik ez ateratzeko.

**Jeanette Lopez, 22 urte.**



Hasieratik erabiltzen dut eta oso erabilgarria da; gainera erraza, ez dauka misterio handirik. Giltzarekin kontuz ibili behar da ez galtzeko, nik bi aldiz galdu dut dagoeneko, baina beste bat eska daiteke. Ikusten dudan arazo bakarra edukiontzien tamaina da: nire ustez baxuegiak eta deserosoak dira.

**Nora Mateos, 21 urte.**



Ez dut hasieratik erabiltzen, baina azken urtean erabili izan dut, fakturan deskontuak egingo zirela jakin aurretik. Sistema ona da, baina uste dut zenbait kontu hobetu daitezkeela. Poltsa, adibidez, ez da oso egokia eta diseinua aldatuko nuke.

**Dabid Camara, 29 urte**



Eibarkoa naiz, eta bertan ere sistema berdina dago. Martxan ipini zenetik erabiltzen dut eta pozik nago, gustura; ez nuke ezer aldatuko. Orain badakit giltzarekin zabaldu beharrean, txip batekin zabalduko dela; baina tira, ez nau kezkatzen.

**Xabier Elkoro, 51 urte**



**Tasio eta Sabino**

**MUSIKA**

**Hilak 7:**

Luis Guitarra  
(kantautorea).  
20:30ean. Lobianon.

**Hilaren 6tik 19ra:**

Alboka Musika Eskolako  
ikasleak. 19:30ean.  
Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 20:**

Kontzertua: Alboka  
Musika Eskola (Alboka  
eguna). 22:00etan.  
Ermua Antzokian.

**Hilak 28:**

Elektrojaia jaialdia.  
15:00etan. Baldespinan.

**DANTZA**

**Hilak 7:**

Erromeria: Gavargi  
taldea + Larraindantza  
(Txindurri eguna).  
19:00etan. Plazan.

**Hilak 8:**

Euskal dantzak: Txindurri  
+ Erromeria: Gavargi  
taldea (Txindurri eguna).  
17:00etan.

**UMEENTZAT**

**Hilak 6:**

Ikastola eguna:  
16:00etan hasita.  
Anaitasuna ikastolan.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 2ra arte:**

Egurrezko eskulturak:  
David López Simón.

**Hilaren 2tik 14ra:**

Margoa:  
Mugartea taldea.

**Hilaren 16tik 29ra:**

Margoa: Udal Margo  
Eskolako ikasleak.  
18:00etatik  
20:00etara. Lobianon.

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 9tik 14ra:**

Gastronomiari buruzko  
jardunaldiak.

**Hilak 14:**

Gau irekia. Hainbat  
ekitaldi, hainbat lekutan.  
22:00etatik.

**Hilak 15:**

Haize zabaleko margo  
lehiaketa. 9:00etatik.

**Hilak 15:**

El Rozioko erromeria.  
11:00etatik. Betiondon.

**Hilak 23:**

San Juan sua.  
22:00etan. Plazan.

**Hilaren 23tik 29ra:**

San Pelaio auzoko  
jaiak. San Pelaion.

Patxi López



**2014ko Jardunaldi  
Gastronomikoak**

- Ekainaren 9tik 15era: pintxo lehiaketa. Pintxoak 1,30 eurotan salduko dira.
- Ekainaren 10ean, asteartea: Gaietak dekoratzeko tailerra 8 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Udal Liburutegian, 18:00etan.
- Ekainaren 12an, osteguna: Galdakoako Andra Mari jatetxeko Zuriñek eskainiko du dastaketa-afaria. Erreteren, 21:00etan.
- Ekainaren 13an, ostirala: Piedemonte upategiaren aurkezpena, Sonikete taldeak lagunduta (*Words and Wine*).
- Ekainaren 14an, larunbata: XIV. Gastronomia Azoka. 11:00etatik 14:30era, plazan. Tartean, Ermuan Kantuan kalejira egingo da.  
15:00etan, paella erraldoia egongo da plazan (4 eurotan).  
18:30etatik aurrera, bakailao txapelketa.  
19:00etan, txistorrada herrikoia plazan (1,50 eurotan).

Antolatzailea: Ermuko Lobiano Gastronomia Elkarte.  
[www.gastronomicaslobiano.com](http://www.gastronomicaslobiano.com)

**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**


Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)

**ALBOKA**

**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)



**LUIS CAÑAS FAMILIA**  
Bodegas LUIS CAÑAS  
Bodegas AMAREN  
Bodegas CAIR



SEÑORIO DE  
**ASTOBIZA** *gabelu*

**Añada Real**



dastatu gure artisau garagardoak!



banatzaile ofiziala

arral97.com  
**arral**

**T. 943176075**

DISTRIBUCIONES ARRAL, 97 S.L. | POL. INDUSTRIAL GOITONDO - GOIKOA, PARCELA 7, PAB. 148269 MALLABIA | BIZKAIA

# aek

## euskararen gustu guztiak UDAKO ESKAINTZA 2014



### EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK  
ON LINE IKASTAROAK



### 2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA ESKOLAK  
EUSKARAZ BIZITZEKO  
AUKERA




### FAMILIA BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO  
SEME-ALABEKIN  
EUSKARAZ ARITZEKO



### BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ  
MINTZAPRAKTIKA  
EGITEKO



## KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

Bizkaia etorbidea 13, behea, ERMUA  
943 17 19 40 • [kaltxango@aek.org](mailto:kaltxango@aek.org)

## 2014ko Uda Ekaina / Uztaila / Iraila

Ekainaren 26tik uztailaren 23ra  
Irailaren 1etik 26ra

**4 ordukoak** - Goizez zein arratsaldez

1go (B1) eta 2.(B2) mailako azterketak prestatzeko ikastaroak  
Euskara hobetzeko ikastaroa (hobekuntza)

**5 ordukoak** - Goizez zein arratsaldez

3.maila (C1) / EGA azterketak prestatzeko ikastaroak  
Euskara hobetzeko ikastaroa (hobekuntza)

### Azterketak urrian

Idazmeneko proba – Urriaren 25ean  
Mintzameneko proba – Azaroaren 28-29an

Diruz lagunduak / Euskaltegi homologatua

# aek

Garena ikasteko  
para entendemos  
pour se comprendre

673 200 100 · 946 464 000  
[www.aek.org](http://www.aek.org)

